

# COVID enbatan ez hondoratzeko flotagailua

## Hezitzaileak

**Oharra:** Hezkuntzatik datozen jarraibideak etengabe aldatzen ari dira, beraz aldaketak jaso heinean, gure dokumentua eguneratzen joango gara.

**Azken eguneratze data:** 2020ko urriaren 6a.

### 1. Langile baten zaugarritasuna baloratzeko jarraitu beharreko pausoak

Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzu bidez, BEREZIKI SENTIKORRAK DIREN LANGILEEN BALORAZIOA gauzatuko da:

- A. **Honako dokumentua** online bete.
- B. E-mailez bidali ([prebentziohezkuntza@euskadi.eus](mailto:prebentziohezkuntza@euskadi.eus) helbidera) COVID 19ri buruzko **informe morbilidad -gaixotze-tasari eta kokapen klinikoari buruzko txostena**.

Dokumentu hori inprimatu ondoren, medikuak bete behar du. Behin bete eta sinatu duela, eskaneatu/pdf formatura pasa eta honela izendatu:

NAN zenbakia MAP Adib.: 78456133MAP

- C. E-mailez bidali ([prebentziohezkuntza@euskadi.eus](mailto:prebentziohezkuntza@euskadi.eus) helbidera) patologia deskribatzen duen medikuaren txostenik eguneratuena.

Informe hauek PDF bakarren jarri behar dira eta PDF honi izena aldatu behar zaio:

NAN zenbakia PATOLOGIA Adib.: 78456133PATOLOGIA

Behin dokumentuak bidalita, zein erantzun espero dezaket?

- Ez zara langile zaugarria.
- Zaugarria zara, baina lanean jarraitu dezakezu NBE (Norbera Babesteko Ekipamendu) egokia erabilia (adib. FFP2 maskarak).
- Zaugarria zara eta ezin duzu lanean jarraitu. Baja mutua bidez tramitatuko da.



### 2. Hezitzaile den langilearen seme/alaben artean COVIDa. Kasuistika

#### A. Seme-alaba kasu POSITIBOA da (PCR +), sintomak izan zein ez

Berarekin bizi diren pertsona guztiei baja emango zaie berarekin kontaktu zuzena izan dutelako.

Seme-alaba positiboa bada, gurasoek PCRaren emaitzak jaso bitartean edo baja eskuratu bitartean, justifikatuzat jotzen da lanera ez joatea. Horretarako **“zinpeko aitortpena”** gehi arakatzaileren mezuaren kopia edota **“zinpeko aitortpena”** gehi medikuaren hitzorduaren kopia aurkeztu beharko dira.

[arabaei@euskadi.eus](mailto:arabaei@euskadi.eus)

[bizkaiaei@euskadi.eus](mailto:bizkaiaei@euskadi.eus)

[eigipuzkoa@euskadi.eus](mailto:eigipuzkoa@euskadi.eus)

#### B. Seme-alaba kasu POSIBLEA da (PCRaren emaitzaren zain), ageriko sintomak ditu

Ikastetxean gurasoaren ausentzia justifikatzeko (umearen PCR froga egin arte) familia-medikuaren egiaztagiri bat bidali behar da ikastetxera.

Familia-medikuaren egiaztagiri hori lortzeko, pediarraren dokumentu bat aurkeztu behar zaio, honako mezua adierazten duena: **“Umea COVIDarekin kutsatu izanaren susmo sendoa dago”**.

#### C. Seme-alabaren gelakide batek POSITIBO eman du

Seme-alaba kontaktu zuzena bada, etxean egon beharko du berrogeialdia betetzen, gurasoek aldez lanera joan beharko dute, ez baitaie bakarrik emango. Batzuetan gela osoa konfinatzen da, eta beste batzuetan gela burbuiletan antolatuta badago, burbuila bat soilik ere konfinatu daiteke (kontaktu zuzenen azterketaren ondorioz).



#### D. Umearen gelakide batek COVIDa izan dezake (konfirmatu gabe)

Gurasoei edota berarekin bizi direnei ez zaie bakarrik emango.

#### Informazio gehiago

Zenbait ohar:

- Ikastetxea ez da itxiko gela kopuru jakin bat ixten delako; gela zein ikastetxea ixtea Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzuari dagokio.
- Berrogeialdian dagoen hezitzaileak ezin du online lanik egin: hezitzaile bat positiboa bada, edo konfinamenduan badago, (bi kasuetan baja eduki behar du) zuzendaritzak ordezkoa eskatu behar du, nahiz eta online lan egiteko egoeran egon.
- Ordezkapenak: konfinamenduan dagoen ordezkoak ezin du ordezkapenik bete/hartu eta uko justifikatua egongo da (horretarako beharrezko dokumentazioa dagokion Lurralde Ordezkaritzara bidali beharko du). Osatutakoan, Lurralde Ordezkaritzara helarazi lanerako prest egoerara itzuli nahi duela.




### 3. Ikastetxeak

→ Ikastetxe bateko ikasle zein langile baten PCRak + ematen badu, lehenik eta behin, Hezkuntza Saileko Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzuekin jarri beharko dira harremanetan. Prebentzio Zerbitzuak balorazioa egin, protokoloa martxan jarriko du eta berrogeialdian nor edo nortzuk egon behar diren esango du.

→ Ikastetxeak berrogeialdian egon behar duen langilearen ordezkoa eskatu behar du, nahiz eta online lan egiteko izan. Salbuespen egoera honetan, ordezkoa eskatzeko, ez da derrigorrezkoa izango titularraren baja agiria izatea.

→ Hezitzaile baten seme-alabaren bat berrogeialdian badago negatiboa izanda, Administrazioak hezitzailea den gurasoari ez dio zaintzarako baimena aitortzen (STEILASetik MECUIDA plana eskatzea gomendatzen dugu).

→ Haurra berrogeialdian dagoenean, baina gurasoei bakarrik ematen ez zaienean, hezitzaileak norberaren eginkizunetarako baimena edota seme-alaba zaintzeko eszedentzia eskatu ahal izango du. Baimen hau momentu honetan egun batetik bestera kudeatzen dute EIZU edo zuzendaritza bidez, eguerdiko



12ak baino lehenago eskatuz gero. Beranduago eskatuz gero, 48 ordutan.

→ Ikastetxean hezitzaileentzat eskuragarri egon behar dira:

Egoera eta zereginak	Profesionalentzat behar den materiala edo norbera babesteko ekipamendua
Maskara behar bezala erabiltzen duen ikaslea	Maskara kirurgikoa
Maskara gabeko ikaslea edo gaizki erabiltzen duena	FFP2 maskara (NBE)
Arnas fluidoekin kontaktua (eztula, doministikak)	Aurpegiko pantaila
Ukitzea eskuekin (mukiak kendu, eutsi)	Erabili eta botatzeko eskularruak
Fluidoekin gorputz kontaktua izatea (gorakoa, baba)	Behin erabiltzeko mantala

→ Osasuna babesteko ikastetxeak gastatutakoaren fakturak Hezkuntza Sailera bidali, dirua bueltatzeko eskatuz.

### 4. Eskatzen dugu

→ COVID-19rentzat bereziki zaugarriak diren hezitzaile, irakasle eta Haur Hezkuntzakoak diren irakasleentzat FFP2 maskarak. Hezitzaileentzat espreski: amantalak, pantailak, eskularruak...

→ Ikastetxe askotara ez da behar adina NBERik iritsi (Norbera Babesteko Ekipamendua). NBE horiek izatea langileen eskubidea da. Hezkuntza Saileko Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzuari exijitzen diogu protokoloa jarraitzeko eta ikastetxeak eta langileak babeserako materialaz hornitzeko.

→ Hezkuntza Saileko Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak, arreta bermatzeko, 24 orduz 7 egunetan telefono bat eta helbide elektronikoa bat zabalik izatea.

→ Ikastetxeko COVID arduradunari lana behar bezala betetzeko orduak ematea.

→ Lehen Hezkuntzako 4. mailara arteko irakasleentzat ere FFP2 maskarak (L.H.ko 5. mailatik gora ikasleek askoz hobeto erabiltzen dute maskara eta arriskua asko txikitzen da).

→ Nahitaezko betebeharragatik baimen ordaindua, 14 urtetik beherako pertsonak edo mendekotasun egoeran dagoen bat zurekin bizi bada, eta nahitaezko konfinamendu agindua edukita. Kontziliazioa errazteko ezinbestekoa iruditzen zaigu neurri hori ezartzea.

→ ZHI langileentzako eta ikasle gorrentzako maskara garden homologatuak (komunikazioa eta hezkuntza eskubidea bermatzeko).



### Bestelakoak

- Ikasleriaren konfinamenduaren balorazio eta nor edo nortzuk konfinatu, eskualdeko OSI-a arduratzen da.
- Langileoi balorazioa, galdetegia eta konfinatu behar garen edo ez, delegaritzetako Lan Osasun Prebentziokoak.